

# Iñaki Goenagaren lana oroitzuz

Azpeitiko itzultzaile omendu berriak egindako 'Wilhelm Tell'-en itzulpena kaleratu du EIZIEK

JUAN LUIS ZABALA - DONOSTIA

Friedrich Schiller aleman idazleak (1759-1805) idatzitako *Wilhelm Tell* obra klasiko ezagunaren euskarazko bertsoa berrargitaratu du Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak (EIZIE). Itzulpena Iñaki Goenaga *Sistiya*-k egin zuen, eta 1934 eta 1935ean argitaratu, zazpi zatitan banatuta, Joxe Ariztimuño *Aitzol*-ek zuzendutako *Yakintza* aldizkarian. Bi mendeurrenekin lotua dago liburu berrargitaratua: aurtun dira 200 urte Schiller hil zela, eta 100 urte Goenaga jaio zela.

Itzultzaile aitzindariak izeneko sailean kaleratu du EIZIEK Goenagaren itzulpena. Iaz eman zuen argitara saileko lehenengo liburua: Charles Dickens *Eguarri abestia*, Ander Arzelus *Luzear*-ek egindako itzulpena. Arzelusen liburuaren kasuan bezalaxe, Goenagaren itzulpenaren berrargitalpenaren edizioaz Inazio Mujika Iraola idazle eta editorea arduratu da. Mujikak atondu duen edizioak *Yakintza* aldizkariako testua jarraitzen du, ortografiatzeko xehetasun batzuetan izan ezik.

Iñaki Goenaga 1905ko urtarilaren 11n sortu zen Azpeitiko Loiola auzoko baserri batean, eta aurtun hainbat omenaldi jaso ditu, 100 urte bete dituela eta. Espainiako Errepublikaren



FRIEDRICH SCHILLER (Wurtenbergen, 1759-Weimar, 1805).

## BULTZATZAILEA

Aitzolek bultzatuta egin zuen 'Wilhelm Tell'-en itzulpena Iñaki Goenagak

garaian, 1936ko Gerra hasi aurreko urteetan, euskal nazionalismoaren aldeko mitinetan hizlari iaio eta txalotua izan zen, eta gerra hasi zenean *Itxarkundia* batailoiko gudari izan zen.

1937an Santoñan atxilotutako gudari ugarien artean izatea egokitu zitzaion Goenagari, eta ondorengo bost urteak kartzelan eman zituen.

## 'Wilhelm Tell', hiru aldiz euskaraz

*Wilhelm Tell*-en itzulpena Aitzolek bultzatuta egin zuen Goenagak. Liburuan Suitzaren independentziari egiten zaizkion goraipametak bultzatu zuten Aitzol obra hori euskaratu beharrekotzat jotzera.

Euskarazko beste hiru itzulpen ere izan ditu *Wilhelm Tell* obra klasikoak: Jaxinto Fernandorenak egindakoa (Gero-Mensajero, 1976); Iñaki Zubeldiarena (Elkar, 1984); eta Migel Anjel Unanuak komiki edizio baterako atonduakoa (Kriseilu, 1989).

## MUSEOAK

Guggenheimek atek irekiko ditu astelehenean

Bilboko Guggenheim museoak zabalik egongo da hurrengo astelehenean. Asteko egun horretan publikoarentzat itxita egon ohi da museoak, baina Aste Santuko porrak direla-eta, hilaren 28an ireki egingo ditu atekak. Atzo bisitari asko izan zituen Guggenheimen egunotan ikusgai dagoen erakusketa erraldoiak; inperio aztekaren gainekoak, alegia.

## ONDAREA

Liburutegi Britainiarrak XII. mendeko eskuizkribu bat itzuliko dio Italiari

Liburutegi Britainiarrak XII. mendeko eskuizkribu bat itzuli beharko dio Beneventoko katedralari (Napoles, Italia) Londresko gobernua hartutako erabaki baten ondorioz. Izkribuak 290 orrialde ditu, eta 1943an, II. Mundu Gerran, desagertu egin zen katedraletik.

## MUSIKA

Joaquin Taboadaren lana bihar Barañainen

Stultifera Navis taldeak Joaquin Taboadak azken hamabost urteotan konposizioaren alorrean eginiko lana aurkeztuko du bihar Barañaingo auditorioan. Kontzertuan Non Profit Music disketxeko zuzendari Jorge Grundmanek hartuko du parte.

## K HARPIDEDUNEN Kioskoa 2005eko Katalogoa



**BUNGALOW** batera asteburu-pasajoan nahi baduzu, adi igandean Harpidedunen Kioskoari

943 30 43 47 - [www.berria.info/kioskoa](http://www.berria.info/kioskoa)

BESTE ESKAINTZA BATZUK ERE IZANGO DITUZU

**INTERSPORT EXTREME**

%5-10 merkeago



Eskaera egiteko:

Herri hauetan:  
Bermeo, Bilbo, Gernika, Ondarroa, Santurtzi,  
Sestao, Oiartzun, Laudio, Castro Urdiales.  
[www.intersport.com](http://www.intersport.com)

**TROKA ABENTURA**  
Kirol abentura

%10 merkeago



Eskaera egiteko:

Troka abentura - Bertizko Aterpetxea  
Itsasbide 58. Gortiz - Tel.: 946 77 42 65  
[www.troka.com](http://www.troka.com)

2005eko Katalogoan, BERRIaren harpidedunentzako hainbat eskaintza ageri dira. 2005eko Katalogoa ez baduzu eskuratu, deitu: 943 30 43 45